



# ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO  
Tfinoa.: 943-31 30 30 e-posta: [infogeldo@euskalerrria.org](mailto:infogeldo@euskalerrria.org)

## INAUTERIAK otsailaren 9an!



### AURKIBIDEA

Itsas Aurre elkarteak /2

Igeldoko Herri Kontseilua /3

Euskal Herriko Mus Txapelketa /3  
Ieltxo /3

Igeldoko Gaztiak /4

Herrira /4

Kixmi aisialdi taldea /5

Eskola eta Mendizorrotz GE /5

## KONTU KONTARI:

IGELDOKO BERTSO ESKOLA  
IMANOL LIZARAZU IRAKASLEA /6-7



Kuadrila ederra atera da aurten ere eskean.

## Kaixo herrikide!!!

Atzean geratu dira Udazken Festa, desanexio eskaeraren urteurren festa, Euskararen Eguna eta Gabonak. Orain berriz, hitzordu berria daukagu: Inauteriak. Otsailaren 9an ospatuko dira Igeldon. Horrez gain, beste ekintza batzuk ere izango ditugu datozen hilabeteetan, Herri Kontseiluaren, Ieltxoren eta gazteen eskutik. Apiriletik berriz, Igeldoko Bertso Eskola martxan da eta Imanol Lizarazu irakaslearekin eta bere ikasleekin bildu da Orri Informatiboa. Eta urteurren bat ere badugu otsailean: Adin txiki-koen harrera etxeak 4 urte beteko ditu. Hori guztia bildu dugu ale honetan.



Euskararen Egunean, Kixmik antolatutako ekintzetan parte hartu zuten haur eta gurasoek.

# Urteurren jai ederra antolatu zuen Itsas Aurrek

Azaroaren 24 eta 25ean Itsas Aurre elkarteak jaia antolatu zuen desanexio eskaeraren 18garren urteurrena ospatzeko. Jai giro polita izan zen nahiz eta eguraldiak ez askorik lagundu. Eguerdian, ekitaldia egin zen herriko plazako sarreran, herriko gazteek herri kiroletan izerdi pixka bat bota eta gero. Bertan, gorosti landare bat landatu zen Igeldoko mugetatik hartutako lur ezberdinekin. Txalaparta doinu, bertsolari eta dantzariak lagundu zuten ekitaldia. Plaza horri ere

izen berria jarri zitzaion, *Harri herri* plaza, hain zuzen, Mariano Urangak egindako harri lana horren testigu.

Bazkaria bikaina izan zen: bazarun jana bere sakramentu guztiekin. Eta bazkalostea beroa benetan, bertsolari, trikitalari, kantari eta haizeak tarteko! Haizeei segida emateko, meriendan gaztaina erreak izan ziren. Egunean zehar, jaia antolatzen sortutako gastuei aurre egiteko, Imanol Gomezen artisau lana zozketa-tatu zen. Eta nola ez, Txapelakoei

tokatu zitzaien!

## Urteko zozketa, martxan

Aurten ere Itsas Aurrek urte osoko zozketa martxan jarri du. Zozketa honen bidez ateratako dirua, prozesuan zehar sortzen diren gastuei aurre egiteko erabiliko da; esaterako, abokatua edo Siadecok egindako lanak ordaintzeko. Zozketa honetan parte hartu duten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkie Itsas Aurre elkarteak eta zorte ona opa die!

# Herriko web gunea sortzeko lanean ari da Herri Kontseilua

GR-121 egokitzeko proiektua onartu du Herri Kontseiluak, baina hainbat kezka ditu eta bilera eskatu dio Donostiako Udalari.

Igeldotarrentzat web gune bat sortzeko lanean ari da Herri Kontseilua. 2012ko azaroan, herritarrenkin parte hartze prozesu bat jarri zuen abian, guztion artean web gunea martxan jartzeko. Helburuak honakoak dira: alde batetik, herritarren eta taldeen artean koordinatzea eta antolatzeko tresna komunikatibo eraginkor bat sortzea. Eta bestetik, Igeldoko informazioa zabaltzea, ezagutza konpartitzea eta erabakiak hartzeko medio parte hartzaile bat sortzea.

## GR-121 egokitzeko proiektua

GR-121 egokitzeko proiektuari buruzko dokumentu bat iritsi zen Herri Kontseiluaren eskuetara, berak aztertu zezan eta erabaki bat

hartu zezan. Herri Kontseiluak erabaki zuen herritarrei kontsulta egitea eta ikusgai jarri zuen proiektua egun batzuetan zehar.

Herritarren iritzia kontuan hartuta, Herri Kontseiluak erabaki du GR-121aren egokitze proiektua onartzea. Baina hainbat kezka azaldu dizkio Donostiako Udalari, idatzitzi baten bidez; hala nola: nork egingo duen obraren jarraipena, noiz hasiko den, noiz bukatuko den, ze kalte izango duen biodibertsitatean, ondoren nork egingo duen mantentimendua, 1,2 metroko zabalera gehiegizkoa dela tarte batzuetan...

Herri Kontseiluak proiektu honen jarraipena egin nahi du eta bilera eskatu dio Donostiako Udalari guztiaz hitz egiteko.

## Auzokonpostak, atzerapena

Donostiako Udalak auzokonposta elkarlanean martxan jartzeko proposamena egin zion Herri Kontseiluari. Bilera bat antolatu zen, eta bertatik familia interesatuak atera ziren. Hasiera batean, abendu bukaeran jartzekoak ziren martxan, baina atzerapenak izan dituzte. Ez dago informazio gehiago.

## Lokaleko eta elizako zerrailen kasua, "onartezina"

Abenduan, gazte lokaleko zerraila eta elizakoa ataskatuta azaldu ziren eta ezin izan dira normaltasunez zabaldu. Honen aurrean, Herri Kontseiluak azaldu du, jarrera hau ez dela onargarria.



**Joritz Etxeberria eta Julen Iribar sailkatu dira Gipuzkoako kanporaketa jokatzeko.** Urtarrilaren 11n Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa jokatu zen Igeldon. Bertan, 8 bikotek hartu zuten parte eta Joritz Etxeberria eta Julen Iribar izan ziren irabazleak. Hori horrela, Gipuzkoako kanporaketa jokatzeko sailkatu dira. Otsailaren 23an jokatu da kanporaketa Seguran. Igeldoko bigarrenak Ander Irizar eta Julen Areizaga izan ziren.

## Zinejana eta Korto Lehiaketa, datozen hilabeteetan

Ieltxok, datozen hilabeteetan, Zinejana, Korto Lehiaketa eta ikastaro berriak antolatu ditu, besteak beste. Korto Lehiaketa bigarren urtez antolatu du eta martxoaren 8a baino lehen eman behar dira lanak. Lanak entregatzeko: [ieltxokulturelkarrea@ymail.com](mailto:ieltxokulturelkarrea@ymail.com) edo Itxas Aurreko bulegoan (Igeldoko Plaza-4), 15:30-19:30.

### EGITARAUA:

OTSAILAK 9: Inauteriak gazteekin batera.  
OTSAILAK 22: Zinejana, umeena.  
OTSAILAK 24: Zinejana - 'Bella Martha'.  
MARTXOAK 9 edo 10: Korto Lehiaketa - Korto emanaldia eta sari banaketa.  
Saria: 100 euroko bonoa Elkarren gastatzeko.  
MARTXOAK 24: Zinejana.

# Inauteriak prestatzen ari dira gazteak

Egitaraua ez dute zehaztu oraindik, baina otsailaren 9an ospatuko dira Inauteriak. Etxebizitzen gaian, azterketa bat egiteko asmoa azaldu dute.

Inauteriak gainean dira eta aurten ere festa antolatuko dute Igeldoko Gaztiek. Egitaraua ez dute zehaztu oraindik, baina otsailaren 9an ospatuko dira Igeldon. Adin ezberdinetako herritarrei dei egiten diete mozorrotu eta ekintzetan parte hartzeko.

## Etxebizitzaren inguruan, kezka

Igeldoko Gaztiek azaldu dutenez, orain, etxebizitzaren gaian, azterketa orokor bat egiteko asmoa dute; hau da, dokumentazio lan bat: zenbat etxe huts dauden herrian, babes ofizialekoak zenbat dauden, nola lortu ziren... Ikusi dute, gazteek kezka dutela etxebizitzaren gaiaren inguruan.

## Hilean behin, batzarrak

Orain arteko funtzionamenduetarekin jarraituz, bilerak 2 astetik behin egiten dituzte gazteek, gutxi gorabehera. Dena

dela, ikusi dute ekintzetan gazte askok hartzen dutela parte eta erabaki dute hilean behin batzarrak egitea. Helburua da, proposamenak jasotzea, taldea zertan den azaltzea eta lanak banatzea.

## Kultur ekimenak, Ieltxorekin

Kultur ekimenak Ieltxorekin batera egitea erabaki dute. Hori horrela, euskal zinea antolatu dute Gabonetan: abenduaren 28an *Urte berri on amona* eta urtarrilaren 4an *Gartxot*.

## Sexologia, Euskararen Egunean

Gazteek ere Euskararen Eguna ospatu zuten. Sexologia tailerra antolatu zuten eta dozena inguru gaztek hartu zuten parte.

## Olentzerori eskutitza

Abenduaren 24an Olentzerori eskutitz

bat eman zioten gazteek. Orain arte bezala indarra eta adorea eskatu zizkieten gazteek bizi duten egoerari aurre egiteko: langabezia, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak... Horrez gain, munduan sufritzen ari direnekin oroitzeko eskatu zioten, Palestinar herriarekin eta euskal preso politikoekin, besteak beste. Gauean parranda egin zuten lokalean.

## Gazte Zukgua eta Gazte Danbada

Gazte Zukguaren prozesua martxoan bukatuko da, gazte antolakunde berriaren jaiotzarekin. Igeldon erabaki da, ekimen puntaletan bakarrik hartuko dela parte, herrian gazte taldea bai baitago. Hori bai, martxoaren 29, 30, 31 eta apirilaren 1ean Gazte Danbada jaialdia egingo da antolakunde berriaren jaiotza ospatzeko eta jaialdiko lanketan parte hartuko dute gazteek.



Herritar ugari egin zuen bat Urtezaharreen Herrirak egindako deiarekin eta gogoan izan zituzten preso eta iheslariak.

## "Falta direnak etxeratzeko, eman dezagun pausoa"

Igeldoko Herrirak bideo bat grabatu du herritarrekin batera, preso eta iheslariak etxeratzeko eskatuz, eta Urtezaharreen ikusteko aukera izan zen eskola zaharretako arkupetan. (Bideoa ikusgai dago youtuben: Igeldo Herrira). Bertan bildutakoek, Bersto Eskolako kideek idatzitako

bertso bat ere kantatu zuten, urtarrilaren 12an Bilboko manifestaziora joateko dei eginez. (Hori ere grabatu egin zen eta ikusgai dago youtuben: Igeldo U12). Urtarrilaren 12an Bilbora joateko dei egin bakarrik ez, autobusa ere atera zen Igeldotik. Bete egin zen gainera.

### ABENDUAK 31- BERTSOA:

*Batzuek jada zerura bota dute bakean usoa baina inola ez degu lortu oraindik bake osoa elkarrekin bizi dugu denok Gabonek duten goxoa baina urrun dagoena da bakana eta gaixoa.*

*nahiz eta oraindik ikusten dugun etorkizuna lausoa jendez bete behar degu azkar elkartasun itsasoa jarri urtarrilak hamabian eta Bilbon gure soa falta direnak etxeratzeko eman dezagun pausoa.*

# Udazken Festa, Euskararen Eguna eta Gabonak ospatu dituzte haurrek Kixmirekin

Udazken Festan, txokolatada eta tailerrak egin zituzten; Euskararen Egunean, jolasak eta karaokea; eta Gabonetan, eskea, pelikula eta ipuin emanaldia.

Hilabete hauetan, Udazken Festa, Euskararen Eguna eta Gabonak ospatu dituzte herriko umeek, Kixmi aisialdi taldearekin.

Udazken Festaren barruan, urriaren 26an egin zen haurren tartea. Arratsaldea gozo hasteko, txokolatada antolatu zuten. Ondoren, tailerrak egin zituzten: Haur Txokoko haurrek orri markagailuak eta Udazken Festako pankarta egin zituzten, hostoekin apainduta. Ludotekako haurrek, berriz, pinaburuak margotuz, zintzilikairuak egin zituzten. Igandeko azokan erakusgai jarri zituzten egindako lanak.

## Futbol partidua, Mihi-luze, karaokea... Euskararen Egunean

Kixmik, herriko beste taldeekin batera, Euskararen Egunean parte hartu zuen. Abenduaren 1ean ospatu zen Euskararen Eguna Igeldon eta Kixmik ekintza ezberdinak antolatu zituen: futbol partidua, Mihi-luze, karaokea eta sexologia.

## Olentzerori ongi-etorria haurrek eta abesbatzako kideek

Gabonetan, eskerako ahotsa fintzeko entsaioak egin ziren abenduaren 15 eta 22an. Azken entsaioan, gainera, tailerra egin zuten. Ludotekako haurrek Olen-



Udazken Festan, txokolatada eta tailerrak egin zituzten.

tzerori eskutitza idatzi zioten eta Haur Txokokoek elur panpinak egin zituzten.

Abenduaren 24 eta 31n, urtero bezala, baserri-baserri koplak kantatzen aritu ziren. 24an, Olentzerori ongi-etorria egin zioten plazan. Haurrek eskutitzak eman zizkieten eta kantuan ere aritu ziren abesbatzako kideekin batera.

Abenduaren 28an, haurrentzako pelikula emanaldia izan zen: *Olentzero eta subilaren lapurreta*. Urtarrilaren 4an, berriz, Ines Bengoa ipuin kontalariarekin ipuin saioa izan zen: *Karabi karaba*. Gabonak ondo bukatzeko, eskean ateratako helduek afaria egin zuten urtarrilaren 5ean, Buena Vista jatetxean.

# Eskolan matrikulatzeko epea, zabalik

Urtarrilaren 31n, agresibitateari buruzko hitzaldia izango da, 17:30etan.

Ekintzez gainezka izaten da urte amaiera eta urte hasiera, eta horrelakoa izan da kurtso honetan ere. Orain, eskolak hitzaldi interesgarri bat antolatu du oldarkortasunari (agresividad) buruzkoa. Gurasoentzat izango da bereziki interesgarria. Urtarrilaren 31n izango da, 17:30etan eskolako areto nagusian.

Horrez gain, urtarrilaren 28an hasita otsailaren 8ra arte, 2013/14 kurtsoko matrikula zabalik izango da, aurtun 2 urte

egiten dituzten umeentzat, (informazio gehiago lortzeko eskolara hurbildu). Igeldokoa Eskola Txikia da. Adin desberdinetako umeak nahasten dira gelan, gurasoen inplikazioa handiagoa izan ohi da eta proiektuak egiten dute lan: lehen hiru hilekoan, Espazioa gaia landu zuten beste Eskola Txiki batzuekin, eta urte berriarekin zinema gaia lantzen ari dira. Eskola "Hollywood Txiki" bihurtuko da, aktoreak, grabazio gelak, bikoizketa

gelak, dekoratuak... denetik izango dira. Haien lanak ikusteko: <http://unibertsoa-eskolatxikiak.blogspot.com.es/> eta <http://igeldoeskola.blogspot.com.es/>.

## Euskara Batzordea sortu dute

Guraso eta eskolaren artean, Euskara Batzordea sortu dute: bertan zehaztuko dituzte zer ekintza egin daitezkeen, irakasle eta gurasoek euskararen erabilera hobetzeko, eskolan eta herrian.

**IGELDOKO BERTSO ESKOLA - IMANOL LIZARAZU IRAKASLEA**

Hainbat herritan bezala, Igeldon ere Bertso Eskola daukagu. Iazko Gazte Egunean, herriko gazte batzuk bertsoarako interesa azaldu zuten eta Imanol Lizarazu bertsolaria irakasle lanak egiteko prest azaldu zen.

Ostegunero elkartzen dira bera eta lau gazte: Xabi Iraola, Mikel Olasagasti, Iñaki Enbil eta Joritz Etxeberrria. Hasieran, Hodei Plazetxekoa ere bai. Kultur etxean elkartzen dira 20:00etan. Klaseak irekiak dira.

**“Herriko hainbat saio, eskolako kideek egin ditzakete”**

**Apirilean jarri zenuten martxan Bertso Eskola, nola joan dira hilabete hauek? Nola ikusten dituzte ikasleak?**

Ondo doaz, hobetzen ari dira. Xabi, adibidez, bertsolariago egiten ari da, plaza gizona, alegia. Ondo egiten du bertsoan, zuzen. Joritz ere txukun aritzen da. Mikelek burura etortzen zaiona botatzen du eta okurrizten den guztia ere ezin da esan... Iñakik, berriz, kontrakoa. Dena ondo lotuta eduki arte ez da hasten. Eta bertsoan isilune luzeak saihestu egin behar dira. Bertsoak izan behar du bat batekoa. Neretzako, isilik geratzea baino, hobe da zerbait botatzea. Bertsoek ere detailatuak izan behar dute. Jendeak irudikatu dezala kontatzen ari zarena. Hori erakusten saiatzen naiz.

Abenduan adibidez, bertso desafioa antolatu genuen beste eskoletako bertsolari batzuekin. Maila beretsuko bertsolariak elkartu ziren. Helburua da plazari beldurra kentzea, lotsa galtzea, eta horretarako pixkanaka joatea da onena, hasieran 10-20 pertsonen aurrean kantatuz.

**Herrira begira, ze funtzio dauka edo izan dezake Bertso Eskolak?**

Adibidez, aukera egongo litzateke herriko bi saio-edo, Bertso Eskolako kideek egiteko. Baita ere bertso eskolak parte hartu dezake festetan, adibidez, gaiak jarritz. Elkarlan bat egin daiteke Jai Batzordearekin. Horrez gain, polita izan zen, Gazte Egunean bertso eskolako kideak ateratzea eta beraiek saio osoa egitea. Hori berriz antolatu daiteke. Ona izango zen egutegi bat zehaztea.

**Garai batean San Joan eskean ere herrikoak ateratzen ziren. Bada helburua edo buruan daukazuena hori berreskuratzea?**

San Joan eskean ateratzeko oraindik zaila ikusten dut. Gau guztian bertsoan bakarrik aritzeko oraindik ez ditut prest ikusten, baina bertsolari



**Imanol Lizarazu.**

laguntzen ondo moldatuko lirateke eta ideia ona da. Herritarrak ezagutzen dituzte, beste ukitu bat jartzeko aukera ematen dute...

**Lehen ere egon zen bertso eskola Igeldon eta bertan aritu zinen. Nola gogoratzen duzu?**

Xabier Sukia eta Ibai Esoainekin jarri zen martxan. Orain dela 17-19 urte izango zen, gutxi gorabehera. Lehenengo urtean arrakasta izan zuen, adin ezberdinetako herritar asko ibili ginen. Bertan ziren Borja eta Julen Iribar anaiak, Joritz Etxeberrria, Axi Aizpurua, Larraitz Dorronsoro, Egoitz Etxebeste, Basi, Urko Aranguren, Gurutze, Jaione, Joxe eta Iker Dorronsoro, Jon anaia eta biok... Beñat

PUNTUA:

**Jada etzea herriko bertsolari bakarra...** horretan ematen det daukadan indarra bertso eskolan gabiltza tirri eta tarra notizi hori ezta neretzako txarra. (Imanol Lizarazu)

Gaztelumendi ere bertan ibili zen. Bere lehenengo plaza Igeldo izan zen. Lau bat urtez aritu ginen, baina azken urteetan oso gutxi aritzen ginen, booma lehenengo urtean izan zuen. Urte hartan, antzerki bat ere egin genuen festetarako. Gabonetako kanta batzuk ere han sortu genituen. Oso polita izan zen.

### **Hemen irakasle lanetan zabilta, baina Usurbilen ikasle bezala.**

Bai, orain dela hiru bat urte hasi nintzen. Bitartean, eskola ezberdinetan ibili naiz: Igeldokoa bukatu eta Luberrin, Hernanin eta Orion ibili nintzen. Orain, Igeldon naiz berriz. Usurbilera joatea ondo etortzen zait praktikatzeko. Dozena erdi bat juntatzen gara eta iaiztik Unai Gaztelumendi da irakaslea. Xabi eta Hodei ere nerekin etortzen dira.

### **Beste bertso eskolekin harremanetan zaudete: Usurbilera joaten zarete, Añorgakoekin bertso desafioa antolatu zenuten... Ze garrantzi du beste**


### **bertso eskolekin harremana mantentzeak?**

Garrantzitsua da jendea ezagutzen duzulako, bertso mundua gehiago ezagutzeko aukera ematen dizu, tranpolinetik saltatzeko beharra ere sortzen dio bertsolariari eta hori ona da. Politza litzateke zonako bertso eskolen artean tarteka bazkari edo afariak egitea eta elkartzea.

Igeldoko gazte taldeak ere asmoa dago Donostialdeko sariketa edo txapelketa moduko bat antolatzeko, maila askorik ez daukaten bertsolariekin. Horrela aukera ematen zaie gazteei.

### **Entzun dugu tabernetako txapelketa egiteko asmoa duzuela...**

Pentsatu nuen herrian badela jende dexente bertsoan aritzen dena eta gustatzen zaiona, baina anonimatoan mantentzen dena. Eta horiei begira pentsatu nuen tabernetako txapelketa antolatzea. Parte hartzaileak izango liriteke 4 bertsozale eta 4 kide bertso eskola-koak. Bikoteka jarrita izango litzateke. Otsailean egiteko asmoa dugu, Ieltxorekin elkarlanean.



## **Zergatik hasi zarete bertso eskolan? Nola ikusten duzue zuen burua?**

Mikel Olasagasti: Gustatu egiten zait bertsoan aritzea. Beti aritzen ginen parrandan lardaxkan eta Imanolek aukera eman zigunean aprobetxatzea pentsatu nuen.

Hobetu dugun, hori maixuak esan behar du. Nik uste dut baietz. Gainera, giro onean aritzen gara eta gustora nabil. Astean behin lagunekin elkartzeko aitzakia ederra da. Nahiz eta batzuetan maixua desesperatu nere irteerakin oraindik hemen jarraitzen dut.

PUNTUA:

**Hartzen hasia zera bertsolari planta...** maixuak pazientzia nahikua daka-ta erritmari sarritan luzatuaz hanka graziarik gehiena horrexek baitauka.

Iñaki Enbil: Ahal genuenetan, parrandan batez ere, bertsoan hasten ginen. Etxean ere oso bertsozaleak gara, baina bertsolariak ez. Hala ere, aita atera zen San Joanetan behin. Eta euskaldunen berezko ohitura ere bada bertsolaritza eta horri eutsi beharra dago.

Apirilean hasi ginen eta 9 bat hilabeteren buruan hobekuntza nabari da, ideiak tolesteko garaian, ideiak nola sartu neurrian, ritmetan... Lehen ahal zen bezala aritzen ginen eta Imanolek bide onetik eraman gaitu.

PUNTUA:

**Hartzen hasia zera bertsolari planta...** Uztapide dirudit egia galanta halare aitzen gera kanta eta kanta horixe lehenengo helburua zan-ta.

Xabi Iraola: Betidanik izan naiz bertso zalea. Beti aritu izan naiz eta azken urteetan lagun artean aritzen ginen. Baina gure bertsoak txarrak ziren, askotan ez genituen bukatzen... Eta behin arratsalde batean etorri nintzen gaiak jartzera, Imanolek esanda, eta bertsoan bukatu nuen. Orain behintzat gai naiz bertso txiki batzuk botatzeko eta bukatzeko.

Ez dut inongo helbururik. Noizean behin bertsoaren bat botatzeko gai izan nahi nuen eta hori lortu dut eta gustora nago.

PUNTUA:

**Hartzen hasia zera bertsolari planta...** aspaldian burutik ezin det aparta irakaslea degu ona ta aparta ta mejoratzeko guk aukera galanta.

# Adin txikikoen harrera etxeak, lau urte

Urgatzi elkarteko kideek urteurrena ospatuko dute eta herritar guztiak gonbidatu dituzte. Idatzi honetan, lau urte hauetako ibilbidearen berri emateaz gain, eskerrak eman nahi dizkiete igeldoar guztiei integrazioan laguntzeagatik.

“ Otsailean, Igeldoko adin txikikoen harrera etxeak lau urte beteko ditu eta Urgatzi elkarteak urteurrena ospatuko duela adierazi nahi du idatzi honen bitartez, eta horrez gain, bizilagunekin konpartitu.

2009ko otsailaren 16an, Igeldoko etxeak bere ateak ireki zituen gizartean zegoen eskaerari eta egoera zailari erantzun bat emateko. Bere proiektuaren barruan, barne parte-hartzea (hezitzaileena eta lagundutako adin txikikoena), eta kanpo parte-hartzea (komunitatean dagon inplikazioa) aurkitzen ziren, oinarritzko eginkizunen artean.

Proiektu berri honen lehenengo urte hauek, biziak eta interesgarriak izan direla esan beharra dago: erronka berri bat, profesional talde berria, integratzeko komunitate berri bat, lagundu beharreko adin txikiko gazte berriak,... Hau guztia, kezka betetako eta alarma soziala sortzen zuen tesuinguru batean gertatu zen eta egoera berri honi konponbidea bilatzeko gure onena jartzera derrigortuak ginen.

Gaur egun, lau urte ondoren eta gure etxetik 20 bat gazte pasa ondoren, egoera ezberdinean aurkitzen gara eta uste dugu garaia dela urte hauetan bizitutakoaren eta egindakoaren inguruan hausnarketa egiteko.

Hasieran zegoen kezka logiko hori denon artean desagerraraztea lortu dugu, denon inplikazioa eta kolaborazioari esker. Eta bizikidetzeta eta auzokidetzeta nagusi izan dira (kezka egoera batzuetan denok gure aldetik jarri behar



Hasiera batean, adin txikiko etorkinen harrera etxea zen. Gaur egun, ez da etorkinena bakarrik.

izan dugu konponbidea bilatzeko).

Igeldoko bizilagunei eskerrak eman nahi dizkizuegu, batez ere Herri Kontseiluari. Zuen ohitura, ospakizun eta ekintza komunitarioetan gure integrazioa bultzatzeko aukera eman diguzuelako eta zuei esker, beste era batera ezagutzen gaituztelako eta beste bat bezala integratzea lortu dugulako.

Herrian egin diren ekimen ezberdinetan parte hartu dugu: futbol txapelketetan, aisialdiko ekintzetan, udazkeneko produktuen azokan 3 urtetan postua jarritz. Bestalde, guretzako garrantzitsuena izan da, denbora honetan, Igeldoko bizilagunen erantzun ezin hobea eta guk antolatutako jardunaldi irekietan parte hartzea. Hau guztia, bizigarri eta estimulurik onena izan da aurrera jarraitzeko.

Gaur egun, atzerritarren etorrera nabarmen gutxitu da, krisi ekonomikoaren egoera dela eta, eta segurue-

na, Espainiako hegoaldeko eta Marrueko mugetan kontrol neurriak gogortu direlako.

Hala ere, behar berriekin aurkitzen gara, hala nola, gure herrialdean dauden haur batzuen desbabesari konponbidea eta erantzuna eman beharrean. Edozein modutan ere, Urgatzi elkartekook, nahiz eta hemendik aurrera erronka berriak izan, hasieran aurkeztutako erronka garrantzitsuenetako bat lortu dugula uste dugu: denon esfortzua eta inplikazioari esker, Igeldoko etxea herriaren bizitzako beste aktore sozial bat gehiago izatea.

Igeldoko hezitzaile taldeak, eskerak eman nahi dizkizuegu elkarbizitzako lau urte hauengatik eta laster antolatuko dugun jardunaldi irekietara gonbidatu nahi zaituztegu guztioi. Informatuak mantenduko zaituztegu.

**Roberto Quiroga**  
Igeldoko egoitzako arduraduna  
Urgatzi elkarte



**Igeldoko  
Herri  
Kontseilua**

Laguntzailea:



**Donostiako Udala**  
Ayuntamiento de San Sebastián